



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Udal Euskaltegia (Basauri)

Basauriko Udal Euskaltegiko Irakasle lanpostu bi txanda irekiz betetzeko lehiaketa-oposizioa arautuko duten oinarriak.

Lehena. — Deialdiaren helburua

Oinarri hauen xedea da, lehiaketa-oposizio askearen bidez, Basauriko Udal Euskaltegian hutsik dauden irakasle lanpostu bi betetzeko deialdia arautzea, hain zuzen, lan- kontratudun langileentzat gorderik daudenak, zeinak 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari baitagozkio (Bizkaiko Aldizkari ofizialean argitaratua 2022ko apirilaren 26an).

Lanpostu kopuruagatik izendatu gabe geratzen diren hautagaiek lan-poltsa bat osatuko dute, lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera. Lan-poltsa hori erabiliko da antzeko edo lanpostu berdineko lanak denboraldi batez egiteko, Udal Euskaltegi honek onartutako irizpideen baitan.

Bigarrena. — Lanposturen ezaugarriak

- Araubide juridikoa: Lan-kontratudun langilea.
- Lanpostu kopurua: 2.
- Lanpostu mota: Administrazio Berezia / Teknikaria / Erdi mailakoa.
- Sailkapen taldea: A2.
- Lanpostuaren izena eta kodea: Euskaltegiko irakaslea.
- Eskatutako hizkuntza eskakizuna: 4.a, derrigorrezkoa.

Hirugarrena. — Lanpostuaren egitekoak

Orokorrak

Euskara-eskolak prestatzea eta ematea Udal Euskaltegian.

Zeregin esanguratsuenak dira:

- Euskara eskolak ematea.
- Eskolak programatu eta prestatzea, horretarako egokienak diren irizpide didaktikoen arabera.
- Ikasleei agindutako lanak jarraitu eta zuzentzea.
- Ikasleen ebaluaketa jarraitua egitea eta beharrezkoak liratekeen azterketak aplikatzea.
- Material didaktikoa eta euskaltegia bera ondo erabilietaerabilaraztea.
- Ikasleen arreta erakarri eta helburuak erdiesteko material didaktikoa moldatu eta sortzea.
- Kanpo ekintzak antolatzea.
- Material didaktikoa antolatu eta sailkatzea.
- Irakasle-batzaren bilera, koordinazio-bilera, ebaluazio-bilera eta pedagogikoetan parte hartzea.
- Euskaltegiaren Curriculum Proiektuaren osaketan parte hartzea.
- Lanposturako gaitasuna mantentzea, profesionalentzako ikastaroetan parte hartuz.
- Euskara maila zehazteko sarrera-probak prestatu eta egitea.
- Material berria antolatzea eta banatzea.
- Bere mailari dagozkion bestelako zereginak betetzea, aldez aurretiko prestakuntza jaso ondoren

**Laugarrena.—Deialdian parte hartzeko baldintzak**

Eskabideak aurkezteko, hautagaiek eskatzen diren baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Europar Batasuneko estatu kideren bateko edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan- etorri askea aplikatzekoa den beste estaturen bateko nazionalitatea edo nazionalitate espainiarra izatea, Europako Erkidegoa eratzeko Itunean definituta dagoen moduan.
- b) Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere Zuzenbidetik bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak Zuzenbidetik bananduta ez badaude, ondorengoak 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak badira eta beren kontura bizi badira (5/2015 LED, 57. artikulua).
- c) Aurretiazko eskaera egitea.
- d) Eskuratu nahi den eskalako edo lan-kategoriako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- e) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- f) Diziiplina-espedientearen bidez Administrazio Publikoetako edo Autonomia Erki-degoetako Erakunde Konstituzional edo Estatutarioetako edozein zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidego edo eskaletara edo lan- kontratuko langileen kategorietara iristeko desgaitasun absolutu edo berezia ez izatea.
- g) Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ezgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikora iristea eragotzen duen diziiplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.
- h) Unibertsitate graduako titulazioa (meces 2. maila) edo baliokidea, edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztargiria eduki beharko da. Atzerrian lortutako titulazioa duten hautagaiek dagokion baliozkotzea edo homologazioa egiaztatzen duen egiaztargiria dutela egiaztatu beharko dute.
- i) Laugarren hizkuntza-eskakizuna duela egiaztatzea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea. Eskakizun hori betetzeko data dagokion hautaketa-prozesuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatze-ko proba egiten den eguna izango da.
- j) Herri Administrazioen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea. Hargatik eragotzi gabe kargu publikoa edo jarduera pribatu bateraezina betetzen dutenek aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubideaz baliatzea.
- k) Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasa ordaindu izana. Zenbatekoa: 18,60 euro (agiri administratiboak luzatzeari buruzko tasa arautzen duen

10. ordenantza fiskaleko 7. atalean zehaztua, Basauriko Udalaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden pertsonak hautatzeko prozesuetan azterketa- eskubideengatik ordaindu beharreko tasak jasotzen dituen). Ez dute tasa ordaindu beharko langabezia daudenean (enplegu-eskariaren txartela aurkeztu beharko dute egoera horretan daudela egiaztatzeko). Tasa modu nominalean eta banan-banan ordainduko da.

- a) Deialdia egin duen euskaltegian ez izatea kategoria bereko lan-kontratuko langile finkoa.
- b) Berriaz onartzea beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta adierazitako helbururako erabiltzea.



- c) Kondenaturik ez egotea epai irmoz delituren bat egiteagatik sexu- askatasunaren eta sexu ukigabetasunaren aurka, zeinetan sartzen diren sexu- erasoa eta sexu-abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, eta adingabeak galbideratzea, bai eta gizon-emakumeen salerosketa ere. Hartarako, egiaztatu beharko du esandako hori, ziurtagiri baten bidez, non agertuko duen ez dagoela erregistratuta sexu-delitugileen erregistro zentralean.

Lanpostuak lortu nahi dituztenek oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, 4.i oinarrian aurreikusitako salbuespena izan ezik.

Bosgarrena. — Eskerak aurkeztea

5.1. Deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira eskaerak.

5.2. Eskariak aurkezteko lekua eta modua:

5.2.1. Basauriko Udal Euskaltegiko lehendakariari zuzenduko zaio. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea oinarrien 2. eranskinean agertzen den ereduaren arabera izango da, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5.2.2. Basauriko Udal Euskaltegiko idazkaritzan edo 39/2015 legeak — Administrazio publikoen prozedura amankomun legeak— 16.4 artikuluan izendatzen dituen bideetatik ere aurkez daitezke eskaerak. Kasu horretan, dagokion funtzionarioak eskabideak aurkezteko epean data eta zigilua ipini beharko die. Horrela eginez gero bakarrik egiaztatuko da eskabideak aipatu erregistroetan sartutako egunean izan duela sarrera Basauriko Udal Euskaltegian (zigiluak eskabidean bertan egon behar du).

5.2.3. Eskabidearekin batera honako hauek erantsiko dira:

- Berariazko adierazpena: eskabidean adierazi beharko da deialdiaren oinarri-arauetan eskatutako baldintza guztiak betetzen direla. Horretarako, sinatutako adierazpena egin beharko da.
- Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartzeko ardura duen organoak, prozeduraren edozein momentutan, hautagaia hautaketa-prozesutik kanporatu egingo du, haren arrazoiak entzun ondoren, jakiten badu ez dituela betetzen deialdian parte hartzeko ezarritako eskakizunak.
- Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eskuratzeko moduan dagoela egiaztatzen duen titulua edo dokumentazioa, izena emateko baldintzetan ezarritakoa egiaztatzeak:
- Nortasun-datuak egiaztatzeak agiria (DNI edo baliokidea).
- Titulazio akademikoa (unibertsitate graduko titulazioa, maces 2. maila edo baliokidea).
- 4. Hizkuntza eskakizuna, 4.i oinarrian aurreikusitako salbuespena izan ezik.
- Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik tasa ordaindu izanaren agiria: 18,60 euroko diru-sarrera Basauriko Udal Euskaltegiaren kontu honetan egin beharko da: ES89 2095 0097 409107506290, hartzailearen tzako kontzeptuan hautagaiaren izen abizenak adieraziz.
- Halaber, hautagaiak aurkeztu ahal izango ditu lehiaketarako kontuan hartzeak izan daitezkeen nahi dituen merituen agiriak.

5.3. Ezgaitasuna dutenen kasuan: Ezintasunen bat daukaten lehiakideek hala adierazi beharko dute eskaeran, dagokion laukia markatuz. Era berean, beharrezko balute denbora edo baliabideak egokitzea probak egin ahal izateko, hala adierazi beharko dute. Lehiakideak aurkeztu beharko ditu ezintasuna jasotzen duen egiaztagiria ofiziala eta egin beharreko egokitzearen inguruko txostena. Agiri horiek onartuen eta baztertutakoen



behin betiko zerrenda argitaratu aurretik aurkeztu beharko ditu, epaimahaiak denbora izan dezan egin beharreko egokitzapenak egiteko. Ezgaitasuntzat hartzen da 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginak onartzen duena. Bestela esanda, administrazioan horretarako eskumena daukan organoak 100eko 33ko elbarritasuna edo handiagoa aitortu dien pertsonak dira ezinduek edo elbarriak.

5.4. Izaera pertsonaleko datuak. Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta aplikagarri diren bestelako arauak. Datu pertsonalak hautapen- prozesuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko ez besterako erabiliko dira, interesdunak emandako baimenean eta datu tratamenduaren arduradunari aitortutako ahal publikoetan oinarrituta, hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio libreaki dagokienez, pertsona fisikoak babestekoak, 6.1 artikuluen a) eta e) letretan xedatutakoaren arabera, hurrenez hurren.

Datu pertsonalak eman ezean, ezin izango da aurkeztu hautaketa-prozesuan.

5.4.1. Berariazko baimena eman beharko dute hautagaiek, parte hartzeko eskaeran, beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko, 9. oinarrian aurreikusitako ondorioetarako. Datu-lagapen horren helburu bakar eta eskusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea, legeaz aurreikusi bezala; eta hautagaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

5.4.2. Tratamenduaren legitimazioa: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enpleguaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea; eta 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorrean diharduten langileen sarbiderako, lanpostuak betetzeko eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako arautegi orokorra onartzen duena.

5.4.3. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, transferitzeko, aurka egiteko edo mugatzeko eskubidea baliatu izango ahal izango da; horretarako, Basauriko Udal Euskaltegiko lehendakariari jakinarazi beharko dio helbide honetan: Urbi 33, 48970 Basauri (Bizkaia). Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Halaber, hautagaiek eskubidea dute datuak lagatzeko baimena erretiratzeko, eta eskubidea dute baita datuen babesaren arloko Kontrol Agintaritzaren aurrean erreklamazioa egiteko ere.

Seigarrena. — Hautagaiak onartzea.

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira: 1) eskubidea atal guztietan betetzea, 2) epearen barruan aurkeztea eta 3) langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik ordaindu beharreko tasak ordaintzea.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko eta Epaimahai Kalifikatzailea izendatzeko ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratuko da. Erreklamazioak egiteko 10 egun balioduneko epea izango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan dioenaren arabera.

Erreklamaziorik egingo ez balitz, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da besterik gabe. Erreklamaziorik egingo balitz, horiek onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeari buruz hartuko den ebazpen berri baten bidez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratuko da.



Erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi- errekurtsua jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, behin onartu eta baztertutakoen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean, eta bidezko den beste edozein helegite tarteratzea eragotzi gabe.

Zazpigarrena. — Epaimahaikalifikatzailea

Epaimahai Kalifikatzailea kide titularrek eta ordezkoez osatuko dute, eta horien izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri .eus) argitaratuko da. Hauek izango dira kideak:

— Mahaiburua:

- Euskaltegiko zuzendaria. Ordezkoa, euskaltegiko irakasle bat.

— Mahaikideak:

- Euskaltegiko irakasle bat. Ordezkoa, euskaltegiko irakasle bat.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako kide bat, eta baita horren ordezkoa ere.
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak izendatutako kide bat, eta baita horren ordezkoa ere.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako kide bat euskara proba egiteko, eta baita horren ordezkoa ere.

— Idazkaria:

- Euskaltegiko idazkari akademikoa. Ordezkoa, euskaltegiko irakasle bat.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideei aplikatuko zaizkie Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. Artikuluetan jasotzen diren abstentzio- eta ezezpen-kasuak.

Langileak hautatzeko organoek kolegiatuta jardungo dute eta, osaketa, berriz, profesionaltasun eta inpartzialtasun printzipioei jarraiki egingo da. Era berean, emakume eta gizonen arteko parekotasuna gogoan hartuko da.

Epaimahaia osatuko duten mahaikideen erdiak gutxienez eduki behar du lanpostua eskuratzeko eskatzen den jakintza arlo berari dagokion titulazioa, eta mahaikide guztiek maila akademiko berekoa edo goragokoa izango dute.

Epaimahaiak, komenigarritzat jo dezakeen probetan, lantzen diren gaietan adituak diren aholkularien lankidetzak eska lezake.

Epaimahaikideak eurak dira deialdiaren oinarriak betetzearen eta ezarritako epeetara lotzearen erantzuleak. Deialdi honen oinarrien aplikazioa interpretatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak epaimahaiak ebartziko ditu, gehiengoz; eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin behar dena ere erabakiko du.

Epaimahaia ezingo da osatu eta ezingo du jardun, baldin eta, gutxienez, lehendakaria eta idazkaria, edo horiek ordezkatzeko dituzten pertsonak, eta kideen erdiak gutxienez ez badaude. Zenbaketatik kanpo geratzen da idazkari diharduena. Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa edukiko dituzte, idazkariak izan ezik; horrek hitza edukiko du, baina botorik ez. Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketa egonez gero, presidente diharduenak ebartziko du.

Epaimahaiaren jardunbidea, uneoro, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak agintzen duenari atxikiko zaio.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal da Udal Euskaltegiko lehendakariaren aurrean. Hilabeteko epea izango da horretarako, iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.

Ariketak egitera, ebazpen bidez prozesuan onartuak izan diren hautagaiak aurkeztu ahal izango dira. Modu berean, ariketa egiteko unean bertan alegazioak aurkeztu dituztela eta horiek erabaki gabe daudela egiaztatuko duten hautagaiek ere aukera izango



dute ariketak egiteko. Aurkeztutako erreklamazioa azkenean onartuko ez balitz, hautagaia prozesutik behin betiko baztertuta geratuko litzateke.

Jakinarazpenak: urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatu-takoaren ondorioetarako, hautaketa-prozeduratik eratortzen diren administrazio-egintzak Udal Euskaltegiaren web orrian argitaratuko dira. Horrek jakinarazpena ordeztuko du, eta ondorio berak izango ditu.

Zortzigarrena. — Hautaketa-prozesua

Langileak sarbide ireki eta oposizio-lehiaketa bidez hautatuko dira.

8.1. Oposizioaldia

Oposizioaldiko ariketak egiteko eguna eta ordua Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratuko dira, gutxienez 5 egun balioduneko aurrerapenarekin.

Epaimahai Kalifikatzaileak edozein momentutan eska dezake hautagaiak bere burua identifikatzea. Horretarako, oposizioko ariketa guztietara Nortasun Agiriarekin edo Epaimahaiak hautagaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzen duela erabakiko duen beste edozein dokumentu ofizialekin (DNI edo baliokidea) aurkeztuko da hautagaia.

Oposizialdiko ariketa bakoitzean, behin ariketak zuzendu ondoren eta hautagaien nortasuna jakinarazi eta bakoitzaren kalifikazioa zehaztu aurretik, Epaimahaiak ariketa gainditzeko beharrezkoak izango diren gutxienerako puntuak lortzeko nahitaezko ezagueren maila edo atalasea ezarri ahal izango du.

Deialdi bakarra egingo da ariketa bakoitzeko. Epaimahaiak ariketa egiteko jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren hautagaiak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira erabat, salbu behar bezala egiaztatu eta epaimahaiak aintzat hartzen dituen ezinbesteko kasuetan.

Epaimahaiak oinarri hauetan zehazten diren oposizioaldiko ariketen hurrenkera aldatzeko ahalmena izango du. Halaber, egun berean ariketa bat edo gehiago egitea erabaki dezake, eta horren berri aldeztu aurretik emango zaie hautagaiei.

Euskaraz egingo diren ondorengo ariketek osatuko dute oposizioaldia:

Lehenengo ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea

Epaimahaiak zehaztutako gehieneko epean. Hautagaiek 1. Eranskinean jasotako gaiekin lotutako idatzizko proba egingo dute, HABEren Curriculumarekin, beronen atalekin eta Curriculumaren beraren garapen eta aplikazioan oinarritua.

Ariketa hau gehienek ere 30 punturekin baloratuko da eta gainditzeko, gutxienez 15 puntu lortu beharko dira.

Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea

Irakasteko gaitasuna. Hautagaiak, Epaimahaiak planteatutako irakaskuntza egoerari erantzun beharko dio ahoz. Ariketa hau gehienek ere 30 punturekin baloratuko da eta gainditzeko, gutxienez 15 puntu lortu beharko dira.

Hirugarren ariketa: Euskara. Derrigorrezkoa eta baztertzailea

Eskatutako euskara maila (4. hizkuntza eskakizuna) egiaztatzeko proba. «Gai» edo «Ez Gai» kalifikatuko da.

Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratutako mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak dioena betez, proba hori egiteko salbuetsita geratuko dira 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten hautagaiak; bai eta Eusko Jaurlaritzaren 47/2012 Dekretuaren 2. xedapen gehigarriaren arabera C2 egiaztatzetik salbuetsita daudenek ere.

Ariketa bakoitzaren emaitzak argitaratu ondoren 10 egun baliodunen epe bat eman go da ezarritako kalifikazioen gainean erreklamazioak aurkezteko.



8.2. *Lehiaketaldia*

Lehiaketaldiak ez du baztertze-indarrik edukiko eta ezingo da kontuan hartu oposizioaldiko probak gainditzeko.

Oposizioaldia gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera, 5 egun balioduneko epea ezarriko da hautagaiak merezimenduak alegatzeko eta egiaztatze (egiaztatgiriak aurkeztea). Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren iragarkian finkatutako eskabideak aurkezteko azken eguna baino lehenagoko merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Lehiaketaldian, horretarako ezarritako epean, hautagaiak azaldu eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira eta ez da beste merezimendurik baloratuko.

8.2.1. Lan-eskarmentua. Gehienez ere, 17 puntu, hauek kontuan hartuta

Eguneko 0,075 puntu jardun hauetan: euskaltegiko euskara-irakasle, trebatzaile, euskaltegiko zuzendari, euskaltegiko didaktikari, euskaltegiko idazkari akademiko. Lan-eskarmentua batzeko, egindako lanaldiak batuko dira. Zerbitzua denbora partzialean edo lan jardunaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi edo jardunaldi osotzat joko dira.

Lan-eskarmentua egiaztatzeko:

«Aurreko zerbitzuen egiaztatgiri» aurkeztu beharko du hautagaiak, erakunde publikoetakoa denean. Enpresa pribatuetakoa denean, berriz, ziurtagiria aurkeztu beharko du, honakoak zehaztuko dituenak: kontratuaren iraupena edo izendapena, izandako lanaldia eta betetako eginkizunak. Halaber, hautagaiak lan-ibilbidea egiaztatuko duen dokumentua aurkeztuko du, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak emandakoa, hain zuzen.

Lan-eskarmentuan ez dira praktikak aintzat hartuko.

8.2.2. Prestakuntza

Gehienez ere, 10 puntu, hauek kontuan hartuta:

- Euskal Filologian lizentziatura edo Pedagogian lizentziatura. Bakoitzeko, 5,35 puntu.
- Euskal Filologian gradua, Pedagogian gradua, Euskal Ikasketak gradua, Itzulpen-gintza eta interpretazio gradua (A hizkuntza euskara denean) edo Magisteritza Euskal Filologia adarrean. Bakoitzeko, 4 puntu.
- Itzulpengintza eta interpretazio gradua (A hizkuntza euskara ez denean) edo Magisteritza (Euskal Filologia ez besteetan). Bakoitzeko, 1,35 puntu.
- Masterra edo graduondokoa, arlo hauetan: didaktika, soziolinguistika, euskara (Euskal Filologian lizentziatura edo pedagogian lizentziatura ez denean). Bakoitzeko, 1,35 puntu.
- 100 ordu edo gehiagoko ikastaroa, arlo hauetan: didaktika, soziolinguistika, euskara, irakaskuntzarako teknologiak. Bakoitzeko, 0,15 puntu.
- 100 ordutik beherako edo ordurik zehaztu gabeko ikastaroa, arlo hauetan: didaktika, soziolinguistika, euskara, irakaskuntzarako teknologiak. Bakoitzeko, 0,07 puntu.
- Euskara-eskolak ematearekin zuzenean lotutako glotodidaktika, euskalduntze edota alfabetatzeari buruzko argitalpenak. Orrialdeko, 0,007 puntu.
- Merezimenduen balorazioa udal euskaltegiaren webgunean argitaratu ondoren, ezarritako kalifikazioen gainean erreklamazioak aurkezteko 10 egun balioduneko epea emango da.

Bederatzigarrena. — *Epaimahaiaren proposamena*

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa oposizioaldian eta lehiaketaldian lortutako puntuak batuz aterako da, eta batuketa horrek erabakiko du behinbetikopuntuazio-hurrenkera.



Epaimahai Kalifikatzaileak puntuaziorik altuena lortu duten hautagaiak kontratupeko langile finko hartzeko proposatuko du. Halaber, proposamena argitaratuko da udal euskaltegiaren iragarki-taulan eta web orrian. Berdinketa gertatuz gero, Epaimahaiak irizpide hauen arabera jardungo du, hurrengo hurrenkerari jarraiki:

- a) Oposizioaldian puntuaziorik altuena lortu duena.
- b) Euskaltegi-tako euskara irakasle gisa izandako esperientzia atalean puntuaziorik altuena lortu duena.

Berdinketa kasuan, ez da aplikatuko, Emakumeen eta Gizonen eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Pertsonen Berdintasunerako Legearen testu bategi-na onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, 7. artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, irakasle lanpostuan emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.

Epaimahaiak ez du, inola ere, deitutako lanpostu kopuruabainohautagaigehiagoproposatuko.

Aurrekoa hala izanik ere, proposaturiko hautagaiari jarraitzen dioten guztiekin zerrenda osagarria egingo du Epaimahaiak, hain zuzen, hautagaiak kontratua hartu baino lehen hari uko egingo balio, lanpostua bete ahal izateko.

Era berean, udal euskaltegiak berak zerrenda erabiliko ditu lan poltsa bat egiteko, azken puntuazioak ezartzen duen hurrenkeraren arabera, lanpostu berdinetan edo antzekoetan langile ez iraunkorren beharrek betetzeko.

Hamargarrena. — Baldintzak egiaztatzea

Proposatutako pertsonak ekarriko ditu, aipatutakoa argitaratzen denetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean, baldintzak betetzen dituela adierazten duten jatorrizko egiaztagiria, alegia, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatu direnak, eta lehiaketan fasean baloratutako merituenak:

- Nortasun Agiria (DNI edo baliokidea).
- Deialdi honetan parte hartzeko eskatutako titulu akademikoa.
- Kargu publikoetan aritzeko gaitasun gabetua ez dagoela edo diziplina espediente-baten bidez Herri Administrazioaren zerbitzutik baztertua ez dagoela adieraziko duen zinpeko aitortpena.
- Administrazio publikoetako zerbitzuko pertsonalaren bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean aurreikusitako bateraezintasun-kausaren batean sartuta ez dagoela adieraziko duen zinpeko aitortpena.
- Mediki ziurtagiria, lana behar bezala betetzea galaraziko ez dion gaixotasun edo akats fisikorik ez duela egiaztatuko duena.
- Desgaitasunen bat duten hautagaiek, aurrekoen gain, dagokion lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasunaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, Administrazioari dagokion organoak emana.
- Sexu delitugileen erregistro zentralean erregistratuta ez dagoela adierazten duen ziurtagiria aurkeztea.

Adierazitako epean eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, hautagaiak ez balitu egiaztagiria aurkeztuko, edo ez balu eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko, ezin izango da izendatu, eta bere jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira. Kasu horretan, organo eskudunak, azken puntuazioaren hurrenkeran hurrengo postua beteko duen pertsona izendatuko du.

Hamaikargarrena. — Deialdiak eta jakinarazpenak

1. Bosgarren oinarrian ezarritakoaren kaltetan gabe, probak egiteko deiak, baita Epaimahai Kalifikatzaileak egin beharreko gainerako jakinarazpen eta komunikazioak ere, udal euskaltegi- iragarki- taulan eta webgunean argitaratuz emango dira jakitera (euskaltegia.basauri.eus).

2. Ildo beretik, deialdiari buruzko informazio orokorra aipatu webgunean izango dute eskuragarri interesdunek.

**Hamabigarrena. — Gorabeherak**

Deialdi honen, bere oinarrien eta horie n nahiz epaimahaiaren jardunaren ondorioz sortzen diren administrazio-egintzen kontra dagozkion errekursoak jarri ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako epeetan eta moduan.

Basaurin, 2024ko apirilaren 11n. — Basauriko Udal Euskaltegiko lehendakaria, María Fernández Morán. — Basauriko Udal Euskaltegiaren Kontseilu Errektoreko idazkaria, Goizane Zabala Arrizabalaga

**I. ERANSKINA****GAIK ETA BIBLIOGRAFIA**

Hizkuntzen irakaskuntza. Irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculum/eu_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf

1. kapitulua. — *Europako Erreferentzia Marko Bateratua, bere politika eta hizkuntza testuinguruan*

1. 1.1. Zer da Europako Erreferentzia Marko Bateratua?
2. 1.2. Europar Batasunaren hizkuntz politikaren xedeak eta helburuak.
3. 1.3. Zer da eleaniztasuna?
4. 1.4. Zergatik da beharrezkoa Europako Erreferentzia Markoa?
5. 1.5. Zertarako da erabilgarria Europako Erreferentzia Markoa?
6. 1.6. Zer irizpide bete behar ditu Europako Erreferentzia Markoak?

2. kapitulua. — *Markoaren oinarrizko ikuspegia*

7. 2.1. Ekintzara bideratutako ikuspegia.
8. 2.2. Hizkuntz gaitasuna neurtzeko erreferentzi maila bateratuak.
9. 2.3. Hizkuntzaren ikaskuntza eta irakaskuntza.
10. 2.4. Ebaluazioa.

3. kapitulua. — *Erreferentzia maila bateratuak*

11. 3.1. Erreferentzia maila bateratuen deskribatzaileak finkatzeko irizpideak.
12. 3.2. Erreferentzia maila bateratuak.
13. 3.3. Erreferentzia maila bateratuen aurkezpena.
14. 3.4. Deskribatzaile argigarriak.
15. 3.5. Ikuspegi adarkatuaren malgutasuna.
16. 3.6. Edukien koherentzia erreferentzia maila bateratuetan.
17. 3.7. Nola irakurri deskribatzaile argigarrien eskalak.
18. 3.8. Nola erabili hizkuntz gaitasunaren deskribatzaile-eskalak.
19. 3.9. Hizkuntz gaitasunak eta emaitzak.

4. kapitulua. — *Hizkuntzaren erabilera eta erabiltzaile edo ikaslea*

20. 4.1. Hizkuntz erabileraren testuingurua.
21. 4.2. Komunikazio-gaiak.
22. 4.3. Komunikazio-atazak eta asmoak.
23. 4.4. Hizkuntzaren komunikazio jarduerak eta estrategiak.
24. 4.5. Hizkuntzaren komunikazio-prozesuak.
25. 4.6. Testuak.

5. kapitulua. — *Erabiltzaile edo ikaslearen gaitasunak*

26. 5.1. Gaitasun orokorrak.
27. 5.2. Komunikazio gaitasunak.

6. kapitulua. — *Hizkuntzaren ikaskuntza eta irakaskuntza*

28. 6.1. Zer ikasi edo bereganatu behar dute ikasleek?
29. 6.2. Hizkuntzen ikaskuntza-prozesuak.
30. 6.3. Zer egin dezake Erreferentzia Markoaren erabiltzaileak ikaskuntza errazteko?



31. 6.4. Hizkuntza modernoak ikasteko eta irakasteko aukera metodologiko batzuk
32. 6.5. Akatsak eta hutsegiteak

7. kapitulua. — *Atazak, eta atazek hizkuntzaren irakaskuntzan duten zeregina*

33. 7.1. Atazen deskribapena
34. 7.2. Ataza gauzatzea

9. kapitulua. — *Ebaluazioa*

35. 9.1. Sarrera
36. 9.2. Erreferentzia Markoa, ebaluaziorako tresna gisa
37. 9.3. Ebaluazio-motak
38. 9.4. Ebaluazio bideragarria eta metasistema

Europako Kontseilua (2021). Europako erreferentzia marko bateratuaren Liburu Osagarria. <https://www.coe.int/en/web/common-european-framework-reference-languages>

39. EEMB: oinarritzko alderdiak, ikaskuntzan eta irakaskuntzan:
 - Ekintzara bideratutako ikuspegia gauzatzea.
 - EEMB: eskema deskribatzailea.
40. Bitartekotza:
 - Bitartekotza-jarduerak:
 - Testuen bitartekotza.
 - Kontzeptuen bitartekotza.
 - Komunikazioaren bitartekotza.
 - Bitartekotza-estrategiak:
 - Kontzeptu berriak azaltzeko estrategiak.
 - Testuak sinplifikatzeko estrategiak Helduen Euskalduntzearen oinarritzko curriculum (HEOC).

https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=05_19_22&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf

41. Curriculumaren oinarriak: Gaitasun komunikatiboa eta ekintzara bideratutako ikuspegia.
42. Curriculumaren oinarriak: Ekintza komunikatiboa, ikaskuntzaren abiapuntua eta ardatza.
43. Helduen euskalduntzearen mailak.
44. Helduen euskalduntzearen osagaiak Gaitasun soziolinguistikoaren garapena.
 - Testuinguruaren ezaugarriak.
 - Gaiak.
 - Kultura-erreferentziak. Gaitasun testualaren garapena.
 - Testu generoak.
 - Funtzioak. Gaitasun linguistikoaren garapena.
 - Adierazpide linguistikoak. Gaitasun estrategikoaren garapena.
 - Komunikazio-estrategiak.
 - Ikasprozesuaren estrategiak.

**Díaz Maggioli, G. (2018). Hizkuntza-irakaslea: irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako gaitasun metodologikoa. Itzulpen Saila 55**

45. Testuinguru formalean H2 ikastea:
 - Ikuspegi sintetikoak.
 - Ikuspegi analitikoak.
 - Mugak.
46. Hizkuntza-ikaskuntzaren testuinguru psikologikoa:
 - Konduktismoa.
 - Konstruktibismoa.
 - Ikaskuntzaren teoria soziokulturala.
47. Hizkuntza-ikaskuntzaren ikuspegi garaikide batzuk:
 - Ikuspegi audiolinguala.
 - Ikuspegi nozional-funtzionala.
 - Atazetanoinarritutakoikuspegia.
48. Ikasleen ikaskuntzaren autokudeaketa, eta bitartekaritza, irakaskuntzaren funtsezko estrategia gisa:
 - Gaitasunetan oinarritutako irakaskuntza.
 - Ikas-estrategietan oinarritutako irakaskuntza.
 - Bitartekaritza-lana: irakaskuntzaren estrategia Nagusia.

Scrivener, J. (2018). Ikasgela kudeatzeko teknikak. Itzulpen Saila 56.

49. Ikasgela:
 - Irakaslea.
 - Ikasleak.
 - Irakaslearen funtsezko esku-hartzeak.
50. Interakzioa erraztea:
 - Talde osoko lana.
 - Bikoteaketataldeak.
 - Ikasgelatik kanpoko elkarreragina.

Sangrá, A. Decálogo para la mejora de la docencia Propuestas para educar en contextos presenciales discontinuos. (2020). UOC. <https://openaccess.uoc.edu/handle/10609/122307>

51. Gutxiago gehiago da: zuzenketa gutxiago eta ikasteko feedback gehiago:
 - Zer da feedback?
 - Zer ezaugarri ditu edo izan behar ditu feedbackak?
 - Zer informazio izan behar du feedbackak?
 - Noiz eman behar da feedbacka?
 - Nola gertatu behar da feedbacka? Baliabideak eta estrategiak
 - Nola inplikatu ikasleak feedbackaz balia daitezen?
52. On line ebaluatzeko gakoak:
 - Erronka: ikasteko balio duen ebaluazioa planteatzea.
 - Ebaluazioaren xedea: zer ebaluatu behar dugu?
 - Ebaluazio-irizpideak, ezezagun handi horiek
 - Planifikazioaren garrantzia lineako ebaluazio-prozesuan.
 - Ebaluatzeko estrategiak eta tresnak: nola aukeratu?
 - Ebaluatutik ebaluatzaileara: paperak aldatuz!



53. Ikaskuntza aktiborako e-jarduerak:
- E-jarduerak eta ikaskuntza aktiboa.
 - e-jarduerak:metodologiaaktiboak.
 - e-jarduerak:testuinguruaetaingurunea.
 - e-jarduera baten osagaiak.
 - e-jarduera motak.
 - e-jarduerak, ikaskuntzamistoaeta etena.

Perez, K., Azpeitia, A. eta Ozaeta, A. (2021). Irakasleen prestakuntza gogoetatsua, hezkuntza berritzeko giltza. Mondragon Unibertsitatea. <http://ebiltegia.mondragon.edu:8080/xmlui/handle/20.500.11984/5392>

54. Hizkuntzak irakasteko eta ikasteko metodologia:
- Komunikazioa ardatza da.
 - Testu-generoa.
 - Ikaste-esperientzia diseinatzeko canva (Txantiloia).
 - Sekuentzia didaktikoaren eredua.
55. Elkarrekintza:
- Elkarrekintza, dimentsio anitzeko fenomeno.
 - Ikasteko hitz egin.
 - Nola diseinatu elkarrekintza emankorrak.
 - Elkarrekintza-irizpideen dekalogoa 56 Ahozotasunaren didaktika.

Vila, M.; Castellá, J.M. (2014): 10 ideas clave: enseñar la competencia oral en clase: aprender a hablar en público. Barcelona, Graó

57. Bigarren hizkuntzaren eta atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza.

Instituto Cervantes. (2018). Las competencias clave del profesorado de lenguas segundas y extranjeras. https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/competencias/default.htm

Méndez Santos, M.C. (2021). 101 preguntas para ser profe de ELE. Edinumen.

58. Eskolak ematea.

Cassany, D. (2021). El arte de dar clase (según un lingüista). Anagrama Argumentos.

59. Curriculuma diseinatu, garatu eta berritu

Escudero, J.M. (1999): Diseño, desarrollo e innovación del curriculum

60. Ebaluazioa ikasbide.

Sanmarti, Neus (2010): 10 gako. Ikasteko ebaluatzen. Bilbo, Euskal Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.



2. ERANSKINA / ANEXO 2
ESKABIDEA / INSTANCIA

I. Norberaren datuak / Datos personales

NA edo baliokidea/ DNI o equivalente	Jaioteguna / Fecha de nacimiento	Herritartasuna / Nacionalidad
1. deitura / 1.º apellido	2. deitura / 2.º apellido	Izena / Nombre
Helbidea / Dirección de residencia	Posta kodea / Código postal	Herria / Localidad
Probintzia / Provincia	Telefona / Teléfono	Mugikorra / Teléfono móvil
%33ko elbarritasuna edo handiagokoa baduzu, adierazi zer egokitzapen berezi behar duzun azterketak egiteko (behar baduzu) / Si tiene una minusvalía del 33% o superior, indique si precisa alguna adaptación especial para realizar los exámenes.		
Posta elektronikoa / Correo electrónico		

II. Titulu akademikoa / Titulación académica

Deialdian eskatutako Titulu Akademiko ofiziala / Título Académico oficial exigido en la convocatoria

Titulua / Título	Zeinek eta non eman dizuten Centro y localidad de expedición	Noiz lortu duzun Fecha obtención

III. Euskara / Euskera

Titulua euskara maila egiaztatzen duena / Título acreditativo del nivel de euskera

☐ 3. HE/PL 3 ☐ 4. HE / PL 4 ☐ Besterik / Otros

IV. Lan esperientzia / Experiencia laboral

Aitortzen diren merituak, aurkeztutako agirien hurrenkera berean zerrendatuta

Méritos que se alegan, en el orden de los documentos presentados

Betetako lanpostua Puesto de trabajo ocupado	Noiz sartu Fecha ingreso	Noiz utzi Fecha cese	Eskola-ordu kopurua N.º horas lectivas	Administrazioaren / Enpresaren izena Nombre de la administración/empresa



V. Prestakuntza / Formación

Euskara langai duten ikastaroak eta prestakuntza jarduerak

Cursos y actividades formativas dirigidas a profundizar en el euskera

Aitortzen diren merituak, aurkeztutako agirien hurrenkera berean zerrendatuta

Méritos que se alegan, en el orden de los documentos presentados.

[illegible]



Argitalpenak / Publicaciones

Aitortzen diren merituak, aurkeztutako agirien hurrenkera berean zerrendatuta
Meritos que se alegan, en el orden de los documentos presentados

Data / Fecha	Non / Lugar	Argitalpena Publicación	Orrialde kop. N.º hojas

Eskabide honetan agertzen diren datu pertsonalak beste herri-administrazioen esku jartzeko, deialdiaren xedearekin bat datozen helburuetarako baimena.

☐ Baimena ematen dut.

☐ Ez dut baimena ematen.

Eskabide hau izenpetzen dudan honek zera eskatzen dut: inprimaki honetan aipatzen diren hautaketa- probetarako onartua izatea. Era berean, Aitortzen ditut eske-idatzi honetan jarritako xehetasun guztiak egiazkoak direla eta Funtzio Publikoan sartzeko baldintzak betetzen ditudala, bereziki ezarritako deialdiari dagozkionak, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitza emanez.

Eskabide honetan agertzen diren datuak norberaren datuen fitxategi automatizatuan jasoko dira. Fitxategi horren helburua hautaketa-prozesu hau kudeatzea da, baita prozesutik sortuko diren lan poltsak kudeatzea ere. Basauriko Udal Euskaltegiako lehendakaria da fitxategiaren arduraduna. Hortaz, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, mugatzeko eta aurka egiteko, organo horretara jo beharko da (Urbi 33, 48970 Basauri).

Consentimiento a la cesión de datos a otras administraciones públicas para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria.

☐ Doy mi consentimiento.

☐ No doy mi consentimiento.

La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente solicitud. Asimismo, Declara, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas para el ingreso en la Función Pública y las expresamente señaladas en la convocatoria, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.

Los datos personales contenidos en esta instancia formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de este proceso selectivo, así como la correspondiente a las bolsas de trabajo que se deriven del mismo. La responsable de este fichero es la presidenta del Euskaltegi Municipal de Basauri, y ante ella podrán ejercitarse los derechos de acceso rectificación, supresión, limitación y oposición. (Urbi 33, 48970-Basauri).

.....n, 2024koren(e)(a)n / En, a ... de de 2024.

BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIKO LEHENDAKARIA
PRESIDENTE DEL EUSKALTEGI MUNICIPAL DE BASAURI